



Heri Aldizkaria

# OTMOZ


1997ko iraila / 26. alea



Bukatu dira  
oporrak!




# Hermanotan ikasitako ikasle ohiek 1940. hamarkadan ospatutako jai egunean egindako argazkia.



Aldizkari honek Eusko  
Jauriaritzako Kultura Saila eta  
Hizkuntza Politikarako  
Sailordetzaren diru laguntza  
jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako  
Foru Aldundiko Kultura eta  
Euskara Departamentuaren  
diru laguntza jaso du



Aldizkari honek Urretxuko  
udalaren diru laguntza jaso du



Aldizkari honek Zumarragako  
udalaren diru laguntza jaso du

## Lanerako buelta

*Berandu jaiki, ondo bazkaldu hori zen bai bizitza denbora pasa ezin hobea baitzen denbora galtzea ez da erraza hori guztia joan dela onartzea orain hasten da langile eta ikasle denen trantzea hilabete bat zeruan pasata infernura bueltatzea.*

*Burukomina, jenio txarra eta estresa itzela "ez nuen uste porrak horren azkar pasako zirela" zuek ere bai lana hastean egon ezker horrela jakin zazute alperrena ere hala kontsolatzen dela: eskerrak behintzat gabonetako porrak gertu daudela.*



**GORKA OJANGUREN**

## Aukerak okerra tapatu

**D**akizuen bezala Urretxuko udaltzainburuak duela gutxi dimisioa aurkeztu du. Korporazioko kideen eta alkatearen arabera arrazoia da honek lan horren ardura bere gain hartzeko inoiz ez duela konbentzimendu handirik izan, baina ez dituzte kontutan hartu udaltzainburu ohiak emandako arrazoiak.

Alkateak ez digu erakutsi udaltzainburu ohiak dimisioa eskatuz aurkeztutako idazkiaren edukia, Udal-tzaingoaren izaeta, kezka eta eskaerak ez dituelako kontutan hartu nahi eta dimisioaren motibazioan alkateak Udaltzain-goarekiko jarreraren duen hutsunea nabaria delako.

Korporazioko hainbat kidek eta alkateak jokatzeko duten moduagatik he-rriko udaltzainak une zailak jasaten ari direla iruditzen zait, eta udaltzainekiko harremana aldatzen ez bada eta hauen iritzia, ikuspuntua eta beharrak ez badira egoki baloratzen honek berdin jarraituko du.

Gehiengoaren arrazoia erabiliz nahi duten hirigintza politika egien ari dira, herritarrei gidatzeko eta aparkatzeko arazoak sortuz eta udaltzaingoaren lanari zailtasunak jarriz. Ezagun dute udaltzaina morroi gisa ikusten dutela.

Udaltzainek doiotena entzun, haiekin hitz egin eta haien kezka aztertuz arazoak konpontzen saiatu balira ez genuke hain epe motzean bi udaltzainburu izendatu beharra izango. Horretarako aukera dagoenez - beste udaltzain batek ere betetzen baititu buru izateko baldintzak- udaltzainburu berria izendatuz arazoa konpondu dutenaren itxura eman nahi izan dute, baina lanpostu horretan dagoen krisiak bere horretan darrai eta hala jardun ezker aukerak amaitzen direnean ezin izango dituzte tapatu aurretik egindako okerrak.

**Jesus Mari Urbegain**  
**Urretxuko H.B.ko Zinegotzia**

OTAMOTZ hilero doan etxean jaso nahi nuke, edo ondorengo lagunari oparitu nahi nioke

IZENA: .....


ABIZENAK: .....

HELBIDEA: .....

HERRIA: ..... K.P: .....

Bidali datuak Zintzo Mintzora, Labeaga 12, Urretxu edo deitu 72 57 75 telefono zenbakira.

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20.700 Urretxu. Tel:725775 **Koordinatzailea:**Amaia Pildain. **Erredakzio kontseilua:** Jon Balenziaga, Aitor Esnal, Jonmikel Insausti, Sebas Iturrioz, Idoia Luzuriaga, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa. **Diseinua:**Sebas Iturrioz. **Informatikaria:**Jonmikel Insausti. **Laguntzaileak:** Bertso eskola, Usue Fernandez. **Inprimategia:**GERTU Koop. E (Zubillaga. Oñati) **Lege Gordailua:**SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**1.300 ale. **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain har-tzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Adin guztiko eta herriko zein kanpoko 164 mendizalek hartu zuen parte irailaren 14an Zumarraga-Urretxu eta Aizpurtxo-ko mendietan zehar egin zen **Iñaki Beitiaren omenezko 1.º iraupen luzeko mendi ibilaldian**. Aldiri Kultur Elkarteak, Goierni eta Ostadar Mendi Taldeek, Urretxu-Zumarragako ikastola eta Zintzo Mintzok antolatutako mendi ibilaldia zen eta Urretxu-Zumarragako udalen laguntza jaso zuen.

Ibilaldiak bi ibilbide izan zituen, bata luzea, eta bestea, berriz, laburragoa. Ibilbide luzea 94 mendizalek aukeratu zuten. 37 kilometroko ibilaldia egin behar izan zuten. Goizeko 6etan Zumarragako plazatik irten eta Ormaiztegiara abiatu ondoren, Kizkitatik barrena Izazpira heldu ziren, gero Samiño eta Oletara joan ziren bertatik Aizpurtxora heltzeko. Hemendik Irimoko gainera heldu eta Santa Barbaratik barrena Urretxuko Iparagirre plazara jaitsi ziren, ibilbidea bukatuz. Antolatzaileek 10 bat orduetan egiteko ibilbidea uste zutena, 7 orduetan egin

zuten helmugara heldu ziren lehenengo mendizaleak.

Ibilbide laburra 70 lagunek egin zuten, hauek, toki beretik goizeko 8etan irten ziren. Bertatik guztiok batera, taldean, giro onean, Oletara abiatu ziren, bertan zerbait jan ondoren, ibilbide luzeko bide berbera jarraitu zuten. Hau da, Oletatik Aizpurtxora jaitsi eta hemendik Irimo tontorrera igo, Santa Barbarara jaitsi eta Urretxuko Iparagirre plazan bukatu zuten ibilaldia. Oletatik aurrera zeuden adarpetan ordurarte batera ibili zen taldea banandu egin zen, bakoitzak bere martxan jarraitu zuen ibilbidea.

Ibilaldiak gure eskualdea ezagutzeko aukera eman zuen, herritar askok sekula ikusi gabeko tokiak ikusi zituztela esan baitzuten helmugara iristean. Gehientsuonon iritzia ibilbide oso polita baina aldi berean oso gogorra izan zela zen, baina hala ere gustura ibili omen ziren eta datorren urtean ere mendi martxan irteteko prest azaldu ziren mendizaleak.

# Antiguako XIV. musikaldia

Irailko lehenengo larunbatean, Zumarragako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin antolatutako **Antiguako XIV. Musikaldia** hasi zen Antigua basilizan. Tronpeta eta organo emanaldiak zabaldu zuen hileko lau larunbatetan ospatuko den musikaldi hau. Hilaren 13an, berriz, tenore eta baritono bikoteak eskainitako emanaldia izan zen entzungai, asteburu honetan piano, biolina eta biolontxelo kontzertua izango da eta bukatzeko, Sine Nomine abesbatza-ren txanda izango da.

Parte hartzaile guzti guztiak goi mailako musikariak dira. Udalak autobus zerbitzua jarri du emanaldietara joan eta bertatik etortzeko, irteera Zumarragako elizaren parean izango da larunbatero arratsaldeko 19.00etan.



Hilaren 6an Antiguako izandako tronpeta eta organo kontzertuko musikariak.




**Maria Angeles Esnaola,  
Secundino esnaolaren  
alaba Zumarragan**

## Maria Angeles Esnaola


Maria Angeles Esnaola, Secundino Esnaola aparteko musikari zumarragararen alabak, bere aitaren sorterrira bisitatu zuen irailaren 15ean. Maria Angelesekin Donostian egonaldi bat egin du egun hauetan, Donostiako Orfeoiak bere 100. urteurrena dela eta gonbidatu baitu. Gaur egun, Mexikon bizi da eta oso pozik agertu zen Orfeoiak zein Zumarragako udalak Zumarragara etortzeko egindako gonbiteaz. Secundino Esnaola, 27 urtez izan zen Orfeoiko

zuzendaria eta Orfeoiak bere historian izan duen lau zuzendarietako bat izan zen. Maria Angeles Esnaola beste behin ere Zumarragara etorria zen baina ez zuen herriko oropen handirik. Udaletxean egon eta gero, bere aitaren izena daraman kalea ezagutu, eta Antiguako baseliza ikusi zuen. Zumarragan izandako jarrera eskertu zuen eta herria berak uste baino handiagoa eta politagoa dela azaldu zuen.




## Zintzo- Mintzok teknikari berria

Unai Alzelai urretxuarra da Zintzo-Mintzoko teknikari berria. Unai 22 urte ditu, soziologiako ikasketak burutu ditu Bilbon eta aurki hasiko da lanean. Bere eginkizuna Urretxu eta Zumarragako zenbait elkartetako kideen artean, euskeraren erabilpena bultzatzea izango da. Hasteko, eskolarteko kirolean dabilzan teknikari, begirale eta haurrekin hasiko da lanean. Gogo handiz jardungo du lan horretan.

  
**Lanbina**  
- Dietetika  
- Estetika  
Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

  
**Keros**  
Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak  
Labeaga, 35 ☎ 72 41 61

**LIBURUENDAKA**  
  
**GANBARA**  
Labeaga, 52  
☎ eta faxa: 72 50 45

# Kandido Izagirre Salaberria gogoratuz

Bere heriotzaren 30. urtemugan (1967-1997)

**A**ita Kandido Izagirre Salaberria (Urretxu 1913 - Arantzazu 1967) hil zela hogeitamar urte bete dira irailaren 12an. Frantsizkotar urretxuar hau, euskalki azterlari fin, urte askotan aritu zen gaiak biltzen. Aita Villasantek Luis Mitxelenari urretxuarraren hil berria jakinarazi zionean, haxe erantzun zion Mitxelenak: "Euskal dialektologorik onenetakoa galdu dugu, Bonaparteren antzekoa, bista mikroskopikoa zorrotzago zuena, Schuchardt-ek esango zukean bezala, makroskopikoa 'baino'" (1967-IX-21). Batez ere Arantzazu inguruko euskara aztertu zuen Izagirrek, hainbat eta hainbat baserriarrek, berriketaldietan, hartutako oharrez baliatuz. Hortaz gain, Ultzama, Erronkari, Tolosa, Oñati eta Altsasuko euskara arakatu eta argitara eman zuen agerkari 'desberdinetan. Bere lanik mardulena "El vocabulario vasco de Arantzazu-Oñate y zonas colindantes" dugu, Luis Villasantek, Izagirre hil eta gero, 1970ean prestaturiko argitalpena. Urretxuarrak utzitako fitxak garbi kopiazea izan zen apailatzailearen helburua, ezer kendu edo 'ipini gabe bere hartan ezagutaraztea, beharrezko argibideak emanez.

Kandido Izagirre frantziskotarraren berri liburu honen atariko IX atalean eman zuen Luis Villasantek, 1968ko abuztuan, inork baino hobeto: CANDIDO IZAGIRRE SALABERRIA, Urretxun jaio zen, Ipeñarrietarra deritzaion etxe famatuan. Jose Migel (Aita Kandidoren anai zaharra) da gaur-egun etxe hartako jauna. Aspaldixotik baserri bihurtua dago Ipeñarrietako jauregi zaharra.

XVII mende hasieran egindako etxea da. errege Felipe III.a Gipuzkoara 1615 urtean etorri zenean, etxe horretan egon zen ostatuz. (...)

Zumarragako estaziotik ederki ikusten da Ipeñarrie-takojauregi hau, Irimo mendiaren hegaletan kokatua. Gaur kamioa dago bertaraino eta sekulako ikuspegi ederra -begiztatzten da handik. Batez ere Zumarragako ;



Kandido, Ipeñarrietako ilobekin.



herri bizkor-langilea, dena lantegiz, burdinbidez, etxez eta jendez betea.

Ipeñarrietako etxe honetan jaio zen, ba, gure aita Kandido 1913 urtean. Baserri etxea zen orduko jauregi hura, eta baserri bizitza egin zuen gure Kandidok txikitatik. Baserri bizitza, eta artzai bizitza ere bai. (...). Txori-zale aparta izan zan beti gure Aita Kandido, eta haurtzarotik zekarren zaletasun hori. Ontzak eta mozo-

loak ez dira falta jauregi zahar hartako orma zuloetan.

**Hamaika urterekin Arantzazura etorri zen, latin eta gainerako eskolak egitera.** 1928 urtean gure Ordenako habitua jantzi zuen Zarautzen. Nobiziaduko urtea Zarautzen egin ondoren, beste urtebete egin zuen Aguileran (Burgos-aldean), gero hiru Naparroako Erriberrin, eta berriz ere Arantzazura etorri zen teologiako ikasketak egitera. **1937 urtean mezaberria eman zuen.**

Karrera bukatu eta bertatik latin-irakasle jarri zen. Arantzazuko kolegioko mutil koskorrei latina irakasten, alegia. Lan horretantxe eman zituen bere bizitzako urteak.

1949tik 1952ra Foruko kolejoan egon zen (Bizkaian), latina irakasten han ere, eta bide batez Kolejioko Zuzendari egiten.

**1952 urtean berriz ere Arantzazura bihurtzen da. Eta hain zuzen ere oraintxe ematen dio hasiera bere hiztegi-lan honi.** Horre-tarako igandeko meza nagusira etortzen ziren agure zaharrak bildu eta hoiei galderak eginez, gaiak biltzen hasi zen. Laister hautatu zituen lankide egoki batzuk eta gero horien baserri etxeetara joaten



**Kandido gurasoekin.**

zen igande arratsaldeetan. Halaxe irauten zuen hamabost urtetan zehar, beti bere azterketak eginez eta gaiak biltzen. Inguruetara egiten zituen osterrak ere -apaiz-lanen bat egitera, noski-euskal gaiak biltzeko aprobetxatzen zituen.

Apaiz karrerako urteetatik zekarren euskal zaletasuna. Bere euskal jakitea

ez zen batere motxa. Batez ere Azkue-ren obrak -Hiztegia, Morfologia- ondo ikasiak eta menderatuak zituen.


**Luis Mitxelena jaunarekin ere har-emanetan zegoen,** eta jaun beronengandik izan zituen lan hau burutzeko akulu pizgarriak, eta bai aholku eta zuzenbide zuhurrak ere.

Bere karrerako ikas-lagunen artean ere euskaltzale sutsuak izan ditu, batez ere aita Julian Alustiza olerkari eta hizlari bikaina, Aita Kandido Zubizarreta, Aita Daniel Gorostizaga, Aita Pedro Urrutia, t.a.

Erronkari, Altsasu eta Ultzamara ere osteratazuk egin zituen, hango euskera aztertzeagatik. Gaixotu zenean, bere irakaskintza urte beterako utzi eta Tolosako komentuan egon zen. Eta hain zuzen, orduantxe bildu zituen Tolosako euskeraren gaiak.

**Hasieran,** jakina, magnetofoi gabe aritzen zen gaiak biltzen, entzuten zuena idatziz. Geroago zuzendu zuen "Geloso" izeneko magnetofoi bat eta beronezaz baliatzen zen.

Arrankudiaga eta Orozko aldera joateko asmoa ere izan zuen, hango



**Kandido, Elosuan, etxetik gertu, 1959. urteko martxoak 19an Uztapide eta Basarri ezagunekin**

euskera berezia eta hilurren dagoena jasotzeagatik, baina ez zuen bere asmo hau betetzerik izan.

Antzuolako euskeraren gaiak, bai, jaso zituen, eta aurki agertzekoak dira (agertu **dira**).

Baiña bere bizitzako lanik haundiena, hainbeste urtetan eta astiro eta ardura haundiz egin zuena, hauxe da, orain argitaratzen dugun hau: Arantzazu eta inguruko euskeraren azterketa hau, alegia.

Gizon ixila eta umila, bihotz onekoa, gauzak sosegaz, tajuzta patradaz egiten zekiena zen Minbiziak jota 1967ko irailaren 13an Arantzazun hil zen. Azken egunetan zer moduz zegoen inork galdetzen bazion, hara zer erantzuten zuen: "Gaizki, baina pozik!"

(...)

Arantzazuko auzoko baserritarrek ez dute gure Aita Kandido behingoan ahaztuko. Euskeraren aitzakiarekin hamaika hitz asperteru beraiekin egin zen, ba.

Goian bego gure Aita Kandido maitea. Eta berak utzi digun eredu zko jarraibidea ez dezagula ahaztu

**Ignatius-ek**

## Aita Kandido Izagirreraren lanak

- ✓ Oñatiko liñagin-iztegitxoa". *Euskera*, 1956 (174-182 or.)
- ✓ "Erronkariko Euskal-Ondakin batzuk". *Boletín de la R. S. V de A. del País*, 1959 (279-314 or.)
- ✓ "Erronkariko euskal-ondakin batzuk", 11. *Boletín de la R. S. V de A. del País*, 1961 (391-407).
- ✓ "Lo que los predicadores podrían contribuir a los estudios vascológicos". *Cantabria Franciscana*, 1961 (281-282 or.)
- ✓ "Eskerrak emanaz". *Arantzazu*, 1964 (260-261 or.)
- "Altsasuko euskeraren gai batzuk". *Anuario del seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, Donostia, 1967 (45-97 or.)
- ✓ "Tolosako euskeraren iztegitxoko gaiak". *Boletín de la R.S. V. de A. del País*, 1967 (157-188 or.)
- ✓ "Ultzamako euskeraren gai batzuk". *Boletín de la R. S. V. de A. del País*, 1966 (403-467 or.)
- ✓ "Notas Lexicográficas". *Anuario del seminario de filología Vasca Julio de Urquijo*, II, 1968 (49-71 or.)
- ✓ "El vocabulario vasco de Arantzazu-Oñate y sus zonas colindantes". *Anuario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"-n argitaratua, IV liburukia (1970)*.  
Liburu hau berriz argitaratu da 1994an, Gerardo Markuletaren hiztegitxo batekin. Bi hitz iraulketa honen nondik norakoaz. hitzaurretan honela dio Markuletak: "Cándido Izagirrek, Arantzazu-Oñate eta inguruetan, baserriz baserri urte luzeetan jasotako hitzekin fitxategi aberatsa eratu zuen. Hura hilik, Luis Villasantek ordenatu eta argitalpenerako paratu zuen haren lana (Anuario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", IV. liburukia, 1970). Honako egitura du hiztegiak: sarrera Oñatiko euskeran (fonetismoak ongi jasorik, mugagabe/mugatuak bereiztuz); gaztelaniazko definizioa gero, sarri askotan euskarazko esaldi bat adibide gisara emanik; informatzailearen izena azkenean, ez beti. *Hiztegi haren iraulketa egin dugu, hots, gaztelazko sarrerak jarri eta euskarazko hitza ostean, ortografia gaurkotuaz eta jatorrizko forman gero.*

ITURGINTZA



**LUIS ANGEL**

Gure erakusketan zain gauzkazu

Deskargarako bidea, z/g eta faxa **725459**

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

**kutxa** fundazioa  
fundación



**Ura guztion eskura!**

S. Esnaola 34, etxeazpia  
20700 ZUMARRAGA

☎ 72 04 23



# Langabetuentzat ikastaroak antolatu ditu Lanbide Eskolak

**Jose Luis Lozano, Urola Garaiko Lanbide Eskolako heziketa ez arautuko arduraduna da. Langabetuak lanerako prestatzea eta hauei enpresetan lana aurkitzen laguntzea da bere lanaren helburua. Ikastaroan zehar eta hauek bukatu ondoren ere, ikas-leen egoeraren jarraipena egiten duenez, eta enpresa handi eta txikiekin harremanak dituenez, ikastaroetan parte hartzen duten ikasleak enplega-tzen saiatzen da.**

## **Zein ikastaro antolatu dira?**

Langabetuei zuzendutako iraupen luzeko bi ikastaro antolatu ditugu. **Fabrikazio Mekanikoa**, 500 ordukoa eta **Mantenimiento en línea** delakoa 420 ordukoa. Urriaren 20an hasi eta martxoaren 30a arte luzatuko dira bi ikastaroak eta klaseak egunero eman go dira. Ikastaroak Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak eta Europako Ekonomi Elkartek diruz lagundutakoak dira.

Irailaren 23tik urriaren 10era bitartera luzatuko da matrikula epea, eta Lanbide Eskolan bertan edota 725477 telefonora deituz egin ahal izango da.

## **Zein baldintza bete behar dira ikastaroan parte hartu ahal izateko?**

Langabezian egotea da bete beharreko derrigorrezko baldintza. Taldeak osatzerakoan, ikasle guztiek klaseak behar

bezala aprobetxatu ahal izateko ahalik eta talde homogeneonak osatzen saiatuko gara. Fabrikazio mekanikoko ikastaroa egiteko gutxienik eskola agiria eta gehienera BBB, UBI edo FPII bitarteko ikasketa maila izan beharko dute langabetuek. **Mantenimiento en línea** delakoan, gutxienik, FPI eskatzen da, eta gehienera ikasketa ertainak burutuak izatea. Injeneritza ikasitako langabetuak ere onartuko dira.

## **Zein da ikastaroen helburua?**


Helburu nagusia langabetuei lana aurkitzea da. Horretarako klase teorikoez gain, enpresetan beste 420 ordu inguruko praktikak egingo dituzte bi ikastaro hauetako ikasleek. Modu honetan lantegietako benetako lana ezagutu eta lanerako prestatuko dira.

## **Zein irtenbide eskaintzen dute ikastaroek?**

Iazko esperientzia ikusita, ikastaro hauek irtenbide baikorra eskaintzen dutela esan daiteke. Helburu nagusia ikasleak lanean hastea da. Ikasle gehienak praktikak bukatu ondoren, praktikaldia egin zuten enpresan lan kontratorekin jarraitu dute lanean. Gainera, egindako praktikei esker, zenbait ikasleak lana lortu ahal izan dute.

## **Dena den ikastaro gehiago ere antolatzen dituzue?**

UGGASArekin batera, langileentzat ikastaro motzak antolatzeke asmoa dugu. Honetaz gain, ikastaro irekiak ere antolatuko ditugu. Hauek jendeak eskatutakoak dira, egoki irudituz gero eta taldeak betetzen badira antolatuko ditugu hauek.



Jose Luis Lozano ikastaroan erabiliko den makina baten aurrean.

# Herritarrak, bertako ohiturak Alemanian erakutsiz

**A**buztuaren 23tik 31ra hamaika laguneko urretxuar gazte talde bat, Urretxurekin anaiturik dagoen Schwarzenbruck herri alemaniarrean izan zen, bertan ospatu zen Gazte Topaketan parte hartuaz. Topaketa hauetan, urretxuarrez gain, herri honekin anaitutako beste bi lurraldeetako ordezkariak ere han izan ziren; Gufidaun eta Kecelekoak hain zuzen ere. Lehenak subtirolesak dira eta bigarrenak hungariarrak. Handik bueltan, beraien esperientzi eta pasadizoak kontatu dizkigute.

Iaz ere bazuten alemaniarrek topaketa burutzeko asmoa baina arazo ezberdinak zirela eta aurtengo uda arte atzeratu zen proiektua. Gonbitea urtarrilean iritsi zen kultur etxera eta ongi pentsatu ondoren baiezkoa erantzun zuten. Hemengo udalak estantzia eta hainbat gastu ordaindu arren gazteek euren poltsikotik ordaindu behar izan dute bidaiak. Egonaldia alberge batean egin dute Hungariarrekin batera. Parrandarako tarterik aurkitu duten arren, ekintza ugari izan dituzte



Alemaniarren garagardoa hemengo baina hobea dela ondorioztatu dute.

hamar egunetan zehar.

## Kultura ezberdinak ezagutzuz

Herrialde bakoitzak egitarauan egun bat zuten bere ohitura eta kulturaren berri emateko. Urretxuarren egitarauko lehen ekintza eskera ikastaratxo bat izan zen, oinarritzko hitz batzuk irakatsi zizkieten gainontzeko gazteei. Aurrekua dantzatu ondoren diapositiba emanaldi bat eskeini zie-

ten, bertan Urretxu eta Donostiako paisaiak ikus zitezken. Iazko jaietako bideoa ikusi aurretik hamaitzeko dotore batez gozatzeke parada izan zen. Txorizoa, salda, sagardoa eta ardoa ez ziren falta izan, nahiz eta ardoa zaharrik edateko orduan makina bat komeri izan ez zen gehiegirik sobratu. Hala ere, txorizoa izan zen arrakastarik handiena izan zuena. Bazkariko menua

ere ez zen edonolako izan: Ganbana-haskia, bakailu-nahaskia, patata tortila, zainzuriak, txistorra, bakailua eta postre moduan gazta. Hau guztia txakolin eta patxaranaz lagundua. Bazkal ostean patxaranak sortutako giroaz herri kanta batzuk abestu zituzten denen artean. Hungariarrekin euskeraz abesteko sekulako dohaina erakutsi zuten. Eguna amaitzeko graffiti bat egin zuten oroigarri

gisa.

### **Harrera bikaina**

Euren arteko giroaz gain iritsi eta berehala izandako harrera azpimarratu nahi izan dute. Antolakuntza aldetik ez dute inolako akatsik ikusi. Gainera herrikide baten bisita izan zuten, bertan bizi den Alfonso Cuestarena alegia. Bestalde hainbat komunikabidek topaketaren jarraipena egin zuten, egunkari batek gainera euskal jakien aipamen berezia egin zuen.

### **Anekdotak ugari**

Pasadizo guztiak kontatzeak luze joko lukeenez bi azpimarratu ditugu: Tirolekoen ohitura bat zelakoan jolasteko makil batekin bazkaldu zuten behin urretxuar batek. Gazta eta gainontze-koak jateko hamaika arazo izan zituen baina makilaz jan zituen denak mesprezurik ez gitearren.

Beste behin, behar zuena

baino luzeago jo zuten festa batetik bueltan, zeukaten giroa ikusita urtebetze festa pribatu batera gonbidatu zituzten. Urteak betetzen zituenari "zorionak zuri" abestu eta dantza ugari egin

ondoren abiatu ziren etxerantz.


Hala ere ez da dena festa izan Europear Batasunari buruzko hitzaldiak jaso eta Munich eta Nurenberg ezagutu zituzten. Nekatuta eto-

rri dira baina berriro ere esperientzia errepikatzeko prest daude. Baliteke, 2000. urtean Hungarian beste topaketa bat burutzea.



## *Mutua General de Seguros*


Iparragirre, 11 URRETXU ☎ 72 25 99



**Aitor Bastarrika**

Bietan, egunez normalean txistua jotzen eta gauzez parrandan.

**Festak,  
egunez ala  
gauzez?**



**Xabier Martinez**

Gehienbat gauzez, baina baita arratsaldetan ere. Gauzez dantzaldira joaten naiz lagunekin.



**Estibaliz Gutierrez**

Bietan. Egunez gauzak antolatuz eta gauzez juer-gan. Hala ere, jende gaztea normalean gauzez gehiago dabil.



**Jon Ander Torres**

Bietan baina gehienbat gauzez. Gazte jendea gauzez ibiltzen da eta giro hobea dago.



**BAPRI**

Animaliadenda

Txoriak, arrainak, katuak, dordokak

Urdaneta, 3 ZUMARRAGA ☎ 72 61 13

**PUBLIZITATEA**  
☎ 72 57 75

**TEJANO**



**Azken moda berria!**

Ipeñarrieta, 4 Urretxu

# Arreitunaindia, Goierriko Itzulian garaile

Irailaren 12, 13 eta 14an, elite eta 23 urte azpitiko txirrindulari afizionatuentzat Goierriko Itzuliaren edizio berri bat burutu zen. Guztira 112 txirrindularik hartu zuten parte 16 taldetan banatuta. Sei talde gipuzkoar, hiru bizkaitar, hiru nappar eta Kantabria, Errioxa, Katalunia eta Portugaleko talde bana aritu ziren nor baino nor. Ibilbide gogorra izan zuten aurten txirrindulariek. Hiru etapatan, 383 kilometro egin behar izan zituzten, tartean, 12 mendate zituztela. Garailea, Peio Arreitunaindia kaiku taldeko txirrindularia izan zen.



**A**zken etapan erabaki zen Goierriko Itzuliaren aurtengo garailea. Arreitunaindia mutrikuarrak, eraso gogorra jo zuen Aztirian gora bakar bakarrik geldituz. Aztiria gainetik helmugarainoko ibilbidea, aise egin zuen Ruben Alvarez ordurarteko liderrari, minutu eta zazpi segunduko alde ateraz helmugan.

Aurtengo Goierriko Itzulia oso lehiatua izan da. Hiru egunetan, hiru lider ezberdin ezagutu ditu probak. Lehenengo eguneko etapak 122 kilometro izan zituen. Aztiriako mendatean hogeitahiru txirrindulariz osatutako talde bat egin zen lasterketa buruan, itzulia irabazteko faborito nagusiak, bertan zeudela. Zazpi txirrindulariz osatutako ihesaldia izan zen ondoren, baina lehen egun honetako azken mendatea Deskarga igotzen hasi aurretik, bertan behera gelditu zen zazpikote horren saiakera. Deskargan gora, hogeitahiruko taldea apurtu egin zen, helmugara, boskote bat iritsiz aurrean. Hauen artean azkarrena, Caja Rulaleko Iker Flores izan zen. Lehen egun honetan etapa eta ondorioz sailkapen nagusiko lehen postua ere, Iker Flores txirrindulari nafarrantzat izan ziren.

Bigarren etapan ordea, Ruben Alvarezen mesedetan, galdu egin zuen

jertsei horia Floresek. 119 kilometroko ibilbidea egin behar izan zuten txirrindulariek. Etapa garaipena Joseba Beloki gasteiztarrantzat izan zen. Lasterketa amaitzeko hamalau kilometro falta zirela zortzi txirrindulariz osatutako talde bat egin zen lasterketa buruan, garaipena, hauen artean erabaki zelarik. ACRko Joseba Beloki nagusitu zen baina sailkapen nagusian, aldaketak izan ziren. Banaka taldeko Ruben Alvarezek jantzi zuen jertsei horia, ordurarteko liderrari, Iker Flores, hamalau segunduko alde ateraz.

Sailkapen nagusian zeuden alde txikiak ikusita garbi zegoen azken etapan erabakiko zela Goierriko Itzuliaren garailea. 136 kilometro zituen azken etapa eta bost mendate puntuagarri. Hain zuzen, mendate hauetako batean, Olaberriakoan, hasi zen itzulia erabakitzen. Igoeran, apurtu egin zen tropela lasterketa buruan, bost txirrindulari geldituz. Kaikuko Beristain eta Arreitunaindia, Baqueko Miner, ACRko Nieto eta Caja Ruraleko Lopez de Munain. Segura bidean, Igor Miner eta Peio Arreitunaindiak aurrera jo zuten. Aztirian gora erritmo gogorra ezarri zuen Arreitunaindiak eta Miner atzean utzi ondoren, bakarrik iritsi zen helmugara.

Mutrikuarra, azken etapako garailea izateaz gain, Goierriko Itzuliaren irabazlea ere izan zen. Sailkapen nagusian ordurarte laugarrena zen 14 segundura baina azken etapan lortutako abantailari esker Goierriko itzulia beretzat izan zen.

## Sailkapen nagusia

<b>1.P. Arreitunaindia</b>	<b>8:46:08</b>
<b>2. Ruben Alvarez</b>	<b>53''ra</b>
<b>3. Iker Flores</b>	<b>1:07''ra</b>

Bestalde, Iker Zabaleta zumarragatarak eginiko itzulia ere aipagarria izan zen. Nahiz eta etapa garaipenik ez lortu, egunero aurrean ibili zen sasoi puntu onean dagoela erakutsiz. Azken etapan hirugarren egin zuen eta sailkapen nagusian berriz, 8.na izan zen minutu eta hogeitamabi segundura. Herriko lehen sailkatuari zegokion saria jaso zuen.

## Gainontzeko sailkapenak

### Mendiko sailkapena

Igor Miner (Baque)

### Tarteko helmugak

Pedro Horrillo (Baque)

### Erregulartasuna

Matias Cagigas (Baque)

### Talderik onena

Kaiku

# Jendea prest Santanastasiatarako

**S**anta Anastasia jaiak bete betean asteburu honetan ospatuko baditugu ere, joan zen asteburutik aurrera, festa usaina antzeman da Urretxuko kaleetan. Izan ere, asteburuan eta baita astean zehar ere festa garaia aprobetxatuz, ekintza ugari antolatu dira herrian. Honela, Ostiraletik igandera bitartean izan zen *Goierriko Itzulira* bertaratutako txirringulariek eta ikusle ugariak majo girotu zuten Labeaga kale ingurua. Igandean, berriz, *Iñaki Beitiaren omenezko I. mendi ibilbidean* parte hartutako herriko zein kanpoko mendizaleak kalean ikusteko parada ere izan genuen. Gainera, jubilatuek egun horretan bertan ospatu zuten beraien eguna eta frontoi inguruan izan zen bai festa giroa. Honek guztiak eta koadrilak industrialdean karroza lanetan ikusteak edota aste barruan *Euskal Jaia Taldeak* antolatutako bideo emanaldiek festak gainean ditugula ohartzeko eta festetarako prestatzen lagundu digute.



 **ARTYRO**  
Eskolan edota etxean egin behar dituzun eskulanetarako behar duzun **guztia**  
Ipeñarrieta,4 ☎ 72 14 20 URRETXU

**ELIZ - KALE**  
 **AUTOESKOLA**  
Bidezar, 11  
20700 ZUMARRAGA ☎ 72 04 52

**BIONA**  
**AROSZTEGIA**  
Altzariak neurritan  
☎ eta faxa: 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

**Kahunas**  
O'neill-Astore-Liberto-H.W.-Libero  
Nekolalde,5 ☎ 72 56 89

**A**  
 deportes  
Secundino Esnaola,5  
☎ 72 42 07  
ZUMARRAGA  
Zabaleta, 3  
☎ 28 77 87  
DONOSTIA  
**APALATEGUI**

## Santa Anastasiak

### ✓ Irailak 19:

18:30: **Erraldoi eta buruhandiak.**

19:00: **Kalejira.**

19:30: **Areto barruko futbol txapelketa** Aldiri kiroldegian.

**Aldasgora** fanfarrearen kalejira.

20:00: **Kainoiaren dambada!!!!!!!**

20:30: **Haurren jaialdi ikusgarria** Iparragirre plazan.

23:00: **Herriko abesbatzak** Iparragirre plazan.

00:30: **Aldasgora** fanfarrearen ikuskizuna Gemikako Arbola plazan.

### ✓ Irailak 20:

**Luz irratizale taldeak** Santa Barbaran egun osoan zehar irratiz airtuko dira.

9:00: **Abelgorrien lehiaketa** Avenidan.

10:30: **Haurren jolasak.**

**Haurrentzako eskalada**, San Martin de Tours elizaren paretan.

Bazkalondoan **helduentzako eskalada** lehiaketa. Finala arratsaldeko 17:30etan.

11:00: **Urretxuko erraldoi eta buruhandiak.** Aldiri Kultur Elkarte konparsa.

12:30: **Ganadu** lehiaketaren sari banaketa. Jaraian, **bertsolarien saioa.**

13:00: **Idi probak**, probalekuan.

15:30: **Plater tiraldia** Odriozo-laren plazatxoan.

17:00: **Haurrentzako ikuskizun berezia** **AZKONA taldearekin** Zubimusu plazan.

18:00: **Idi probaren bigarren saioa.** Ederrena pilotalekuan **XXII. Gastronomi Lehiaketa.**

19:30: **Herri arteko IX. Folklore Lehiaketa.**

23:00: **Iparragirre plazan Musikaldi kontzertu ikusgarria.** **Santi Gutierrez** omenaldia eskainiko zaio.

Kaleetan zehar goizeko 3:30ak arte **ALDAPA txaranga.**

01:00: eta goizeko bostak bitartean, Gemikako Arbola plazan, **BASA-JAUN taldea.** Ordu horretan **txoznetan herriko rock taldeen kontzertua.**

5:30: **Txokolate beroa** txoznetan.

7:10: **Zezenak**, Urolako Geltoki Zaharrean.

### ✓ Irailak 21:

#### EUSKAL JAIA

10:00: **Kalejira.**

11:30: **Meza Nagusia.**

Goiz osoan zehar hainbat euskal ekin-tza Gemikako Arbola plazan.

11:00: **Pottoka erakusketa.**

17:30: **Karrozen ibilaldiaren irteera.**

18:30: **Urretxuko txalapartariak.**

23:00: **Euskeraren aldeko kandela piztea eta krabelin dantza.**

00:30: **Alaitz eta Maider taldearen dantzaldia** Gemikako Arbola plazan.



● Irailaren 7an 14 urte beteko dituen neska xarmangarri hau zoriondu nahi dugu. **Kilkerrak ZORIONAK NAIARA!!!**

● Kilkerrak batek zure 20. urtebetetzean zoriondu nahi zaitu eta txanpainarekin ospatzea espero du. **ZORIONAK GARIKOITZ!!!**



● Argazkiko neska jator honen urteak irailean izan dira. Kilkerrak batzuk zoriondu nahi dute. **Zorionak OLATZ!!!**



**MASTER HEZKOR**

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31



**MAPFRE**

Aseguru etxea

S. Esnaola, 6 ZUMARRAGA  
☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

**EDURNE**

Punta Puntako moda!

**Aukerarik hoberena gizonezko eta gazteentzat**

Piedad, 18 Zumarraga ☎ 72 14 17

# Lagun Arok txano bat oparitzen dizu

Honelako txartel bat\*  
Zumarragako **LAGUN ARO**  
bulegora eramaten baduzu,  
zure automobilaren  
asegururako aurrekontuarekin  
batera, **txano ederra** emango  
dizugu oparizat



## **AUTOMOBILA**

Marka eta modelo

Daukan hobaria

Adina

\* txartela banatu egingo da.



**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK

**Kalebarren, 1. Tel:72 50 22**  
**ZUMARRAGA**